

ENAGÁS TRANSPORTE DEL NORTE, S.L.

Sozietate-izena

Enagás Transporte del Norte, S.L.

IFZ

B95713541

Izaera

Sozietate mugatua

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Zenbatetsia.

Sorrera

2013ko otsailaren 11n emandako eskritura publiko bidez eratu zen sozietatea ETN Holding I. S.L.U. izenarekin.

2013ko otsailaren 25ean, ETN Holding I, S.L.U.k Sociedad ETN Holding II, S.L. xurgatu zuen eta jaulkitako partaidetza berriak gutxiengoa zuen Energiaren Euskal Erakundea bazkideari egotzi zizkion sozietate xurgatzaileak, gehiengoa duen bazkideak (Enagás Transporte, S.A.U.) onartutako kapital-gehikuntzaren bitartez.

2013ko maiatzaren 20an, sozietateak izena aldatu zuen eta Enagás Transporte del Norte, S. L. sozietate-izena du orain.

Zer saili atxikia

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

4950 Hoditeria bidezko garraioa

Sozietatearen helburua

Honako hau da sozietatearen helburua:

- Gas naturala birgasifikatzeko, haren garraio primario eta sekundarioak eta biltegitratzeko jarduerak, dagozkion gas-azpiegitura edo instalazioak -propioak zein inorenak- baliatuz edo haien bitartez, eta, orobat, aurrekoekin lotutako jarduera osagarriak.
- Mota guztietako gas-azpiegiturak eta instalazio osagarriak diseinatzea, eraikitzea, martxan jartzea, ustiatzea eta mantentzea, telekomunikazio-sareak, edozein izaerako teleaginte eta kontrol sistemak barne hartuta, baita sare elektrikoak ere; propioak zein inorenak, guztiak ere.
- Haien jarduera nagusiekin lotutako edota haien ondorio diren beroa, hotza eta energiak aprobetxatzeko jarduerak.
- Askotariko zerbitzuak ematea, honako hauek, besteak beste: haien xede diren jarduerekin lotutako ingeniaritza, eraikitze eta aholkularitza zerbitzuak, baita gas naturalaren merkatuetako kudeaketa-jardueretan parte hartzea ere, baldin eta legeak sozietateari esleitutako jarduerekin bateragarriak badira.

- Karbono-dioxidoa, hidrogenoa, biogasa eta izaera energetikoko bestelako fluidoak garraiatzeko eta biltegitratzeko jarduerak, dagozkion azpiegiturak -propioak zein inorenak- baliatuz edo haien bitartez, eta jarduera horietarako beharrezkoak diren mota guztietako azpiegiturak eta instalazio osagarriak diseinatzea, eraikitzea, martxan jartzea, ustiatzea eta mantentzea.

Kontabilitate nazionaleko sailkapena


Sozietate ez-finantzario pribatuak.

Kapital soziala

38.501.000 €

Kapital sozialaren osaera

Enagás Transporte, SAU. % 90,00
 EEE - Energiaren Euskal Erakundea % 10,00



Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboak, guztira	291.749 milaka euro
Ondare garbia	142.821 milaka euro
Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	33.431 milaka euro
Langile-kopurua, batez beste	1

Sozietatearen egoitza

Durangorako bidea, Arriandi kalea/ Arriandi auzoa, 28 A - 48215 Iurreta (Bizkaia)

Webgunea

www.enagas.es